

Etorkizun sozialago eta zirkularrago baterako bidean, zure lekua Emaus Gizarte Fundazioan dago

Emaus Gizarte Fundazioa (www.emaus.com) bost erakundek osatzen dute; 14 milioi euroko fakturazioa dute eta 365 pertsonako giza taldea. 2024az geroztik, Fundazioak etapa berri bati ekin dio, estrategia berrituarekin, lau erronka nagusi ardatz izanda: Helburua berritzea, gobernantza-eredua, posizionamendua eta jasangarritasuna.

Eraldaketa sakoneko eta partaidetzazko prozesu horretan parte hartzeak motibatzen bazaitu, eta gure proiektua indartzeko eta hazteko ekarpen aktiboa egin nahi baduzu, pozik jasoko dugu zure hautagaitza.

Pertsonen zuzendaria

Zein izango da zure eginkizuna?

Honelako pertsona bat bilatzen dugu: pertsonen arlotik eta Zuzendaritza Taldeko kide gisa Fundazioari erakundearen balioekin bat datorren pertsonen politika garatzen lagunduko duen pertsona bat, talde zaindu, kualifikatu eta konprometituak bermatuko dituen, Fundazioaren Ikuspegia lortzeko proiektuak modu parte-hartzailean eta sarean bultzatzeko gai izango diren taldeak.

Gainera, postu horretatik berdintasuna eta euskara arloak gidatuko ditu.

Erantzukizun nagusiak:

- Pertsonen eta erakunde-kulturaren estrategia eta plangintza definitzea eta gauzatzea.
- Hautaketa-, ebaluazio-, prestakuntza- eta garapen-prozesuak koordinatzea.
- Lan-ongizaterako, antolakuntza-girorako eta talentuari eusteko politikak bultzatzea.
- Lan-harremanak, bitartekaritza eta gatazken prebentzioa kudeatzea.
- Langileen aurrekontua egitea eta kontrolatzea.
- Lan-arloko araudia betetzen dela bermatzea.
- Berdintasun-politika gidatzea.
- Euskara-politika gidatzea.

Ezaugarri hauek dituen pertsona baten bila gabiltza:

Lidergoa eta ikuspegi estrategikoa, eta oinarri tekniko sendoa, xehetasunetara bideratuta. Komunikatzeko, analisirako eta erabakiak hartzeko gaitasuna. Berdintasunaren, aniztasunaren eta kulturartekotasunaren arloko konpetentziak. Lankidetzeta-lanerako eta aldaketaren kudeaketarako gaitasunak. Konfidentzialtasuna eta etika profesionala.

Erakundearen asmoarekin konprometitutako pertsona bat, ekarpenak egiteko, ikasteko eta hazteko gogoak dituena.

Beharrezkoa da aldeztu aurretik esperientzia izatea antzeko lanpostuetan eta euskara eta gaztelania erabat menperatzea.

Berehala lanean hasteko.

Lanpostuaren egoitza: Donostia (batez ere, Gipuzkoan eta Bizkaian mugitzeko prest, beste zerbitzu batzuen egoitzak baitira).

Hautagaitzak jasotzeko azken eguna: 2026ko otsailaren 13a

CVa formulario bidez bidaltzea